

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kanpoan diren Nafarren Eguna ospatuko larunbat honetan Cascanten

Urtero herri batean egiten da, eta Foru Komunitatek kanpo bizi diren nafarrak elkartzeko da

Astelehena, 2017.eko maiatzak 29

Larunbat honetan, ekainak 3, Kanpoan diren Nafarren Egunaren XXIX. edizioa izango da Cascanten. Jaieguna da, eta urtero, Foru Komunitatek kanpo bizi diren nafarrak elkartzeko erabiltzen da.

Horrela jakinarazi du gaur goizean prentsaurrekoan Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok. Berarekin batera, Icíar Ortiz de Urbina, Nafar Etxeen Federazio Nazionaleko lehendakaria, Nafarroako Gobernuarekin ekitaldia antolatu duen erakundea, eta Cascanteko alkate Alberto Añón izan dira.

Olo kontseilariak Nafarroako Gobernuak jaiegun horri emandako laguntza nabarmendu du, eta Nafarroako herritar guztiek kanpoan bizi diren nafarrei egindako harrera adeitsu, estimu eta solidaritatearen adierazgarria dela. Gure Foru Komunitateko ezinbesteko zati bat dela ere esan du. Horrez gain, Cascanteri buruz ere hitz egin du, aurten herri horretan ospatu baita. Hauxe adierazi du: "Nafarroako Erriberako leku garrantzitsua da, milaka urteko historia baitu, goi-mailako arte-ondarea, kultura-aniztasuna eta jende langile eta bereziki abegitsuen gizarte-taldea".

Azaldu dutenez, topaketa honetara Espainiako geografia osotik



Larunbatean, ekainak 3, Kanpoan diren Nafarren Eguna ospatuko da Cascanten.

banatuta dauden Nafarroako hamahiru etxeetako ordezkariak etorriko dira (Kantabria, Burgos, Bilbo, Barakaldo, Arrasate, Gasteiz, Logroño, Zaragoza, Valladolid, Madril, Bartzelona, Valentzia eta Sevilla). Haientzat guztientzat, bezperan, hots, ostiralean, hasiko diren zenbait [ekitaldi](#) antolatu dira. Herriko Udalak ekitaldiak aurkeztuko ditu, "Alegría Ribera" eta Cascanteko Jota Eskolak jota-emanaldi bat emango dute eta Nafar Etxeen Federazioak omenaldia egingo dio erriberako hiriari.

Ekitaldien programa

Larunbatean, hilak 3, ekitaldiak 11:15ean hasiko dira, bertaratutakoen harrerarekin eta lunch txiki batekin (txigorkiak olioarekin), Romero Parkeko Pergolan. Ondoren, agintariei harrera egingo zaie, leku berean, 11:45ean, eta Romeroko Andre Mariaren Basilikaraino joango dira. Hango arkupetik txupinazoa botako dute. Jarraian, meza kantatu bat egingo da. Meza amaitutakoan, 13:00ak inguruan, kalejira egingo da, dultzaineroek eta buruhandiek girotuta, eta erraldoien dantza.

Gero, 14:30an herri-bazkari bat egingo da udal kiroldegian, Cascanteko Cais Cantum Abesbatzak girotutako bazkalondoa. 18:00etan José Luis Jiménez eta Jesús Caballeroren saioa izango da eta festa 19:00etan amaituko da. Ordu horretan autobusak Udal kiroldegitik abiatuko dira jatorrizko herrietarantz.

Horrez gain, 12:00etatik 14:00etara Museo Etnografikorako bisitak antolatu dira, baita Cascanteko turismo-gunerik interesgarri eta adierazgarrienetatik ere. Bestalde, egun osoan, "pintxo-pote" egongo da herriko tabernetatik, 2 eurotan.

Festak Nafarroako Gobernuaren 20.000 euroko diru-laguntza du, bertaratutakoak Cascantera joateko bidaia finantzatzeko, emanaldietarako eta antolaketa-gastuetarako.

29 edizio

Kanpoan diren Nafarren Eguna 1989tik ospatzen da, beraz, datorren larunbatean, ekainak 3, 29. edizioa izango da. Urtero herri bakoitzean egiten da, eta orain arte, Foru Komunitatetik kanpo bizi diren nafarrak herri hauetan bildu dira: Corella (bitan), Lizarra, Erriberri, Zangoza, Tuter, Iruña, Elizondo, Viana, Irunberri, Azkoien, Erronkari, Tafalla, Lodosa, Agoitz, Los Arcos, Otsagabia, Milagro, Auritz, Fitero, Arguedas, Artaxoa, Funes, Ultzama, Mendabia, Izaba, Andosilla eta Lekunberri